



TOLOSAKO
UDALA

ALKATEAREN DEKRETUA
Zk.: 2016/727

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak emana.

2016ko martxoaren 15ean, 2016/486 Alkate Dekretu bidez ondorengo kontratazio prozedura onartu zen:

Tolosan 2026rako hausnarketa estrategikoa eta Agenda 21 ekintza planaren berrikuspena, bi dokumentuetan berdintasun printzipioa txertatua proiektua aurrera eramateko zerbitzuaren kontratazioa, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez.

2016ko apirilaren 8an, batetik, ingurumen teknikariak eta parte hartze arduradunak eta, bestetik, berdintasun teknikariak dagozkien txostenak egin dituzte eta adjudikazio proposamena egin da "Enea, estrategias para la sostenibilidad, S.L.", enpresaren alde.

Horretan oinarrituz, 2016ko apirilaren 8ko 2016/639 Dekretu bidez, errekerimendua egin zitzaion bertan aipatutako dokumentuak ekar zitzan eta fidantza ezartzeko.

Emandako epe barruan aurkeztu ditu eskatutako dokumentuak eta fidantza jarri du.

Beraz, hau dena kontuan izanik

EBATZI DU:

Lehena.-Adjudikatzea Enea Estrategias para la sostenibilidad, S.L., enpresari ondorengo kontratua: "*Tolosan 2026rako hausnarketa estrategikoa eta Agenda 21 ekintza planaren berrikuspena, bi dokumentuetan berdintasun printzipioa txertatua* " proiektua aurrera eramateko zerbitzuaren kontratazioa.

Prezioa hau izango da: 49.062,36 + BEZa

Bigarrena.- Aurkeztu diren lizitatzaille guztiei adjudikazioa jakinaraztea.

Hirugarrena.- Kontratua formalizatzeko hamabost baliodun eguneko epea jartzea, lizitatzaillei adjudikatze hau jakinarazi den egunetik hasita.


Laugarrena.- Kontratuaren formalizazioa profilean argitaratzea, adjudikatzenetik berrogeita zortzi eguneko epearen barruan.

Bostgarrena.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta interesatuei

Tolosan, 2016ko apirilaren 19(e)an

ALKATEA

Olatz Peon Ormazabal



Nire aurrean
IDAZKARIA

Jose Luis Unanue Ugalde